

editoriala

# GAL auziaren erabilpena

**E**spainiar Gobernuoko presidenteordea den Francisco Alvarez Cascosek Madrilo Diputatuen Kongresuan, GAL auzia dela eta, agerraldia izan zuen atzo. Trama honetan auziperatutakoekin ea inolako konpromisorik bazuen izan zen erantzun beharreko galdera.

Alvarez Cascosek GALEko kideei ez diela inoiz ezer agindu esan eta PSOEk demokraziaren printzipioak zalantzan jarri zituen amaraun politiko-polizial bati babesa ematen diola gaineratu zuen. Felipe Gonzalezen alderdiak, bere aldetik, PPri aurreko Gobernu botatzeko joko maltzurretan aritu izana egotzi zion.

Xelebre samarra badirudi ere, bai bataik bai besteak arrazoi dutela esan daiteke. Ukaezina baita PSOE eta, zehazki, Barne Ministerioan jarri zuen taldea gerra zikinaren putzuan lepezurreraino sartu zirela Gobernura iritsi bezain pronto.

Ukaezina baita, era berean, PPK Felipe Gonzalez La Moncloa Jauregitik kanporatzearen GAL auzia erabili zuela, hauteskundeak irabazi ondoren «orrialdea pasatzea» erabaki zuela bezain ukaezina. Are gehiago, PSOEk egin zuen bezalaxe, euskal abertzaleen kontra odozer baliabide erabilizko prest azaldu da Jose Maria Aznarren Gobernu, herenegun Cesiden espioitza justifikatuz Eduardo Serra Defentsa ministroak Kongresuan baieztatutakoek erakusten dutenez.

Xelebrekeriari jarraitzeko, orain PSOEk berak ere GAL afera erabiltzen du PPren Gobernuari erasotzeko eta honek, akusazio hauei erantzun eta beroriek isilarazteko, talde parapolizialak egindakoak gogoratzen ditu.

Gutxienezkoa, beti ere, trama eta trama honetako hildakoak dira, gerra zikina Estatuko aparatuei loturik egotea bost axola zaien alderdi hauek lotsagebeki erabiltzen dituzten hildakoak, alegia. Horrexegatik da ikuskizun hau honen nazkagarria.

hoy escribe

Paulo AGIRREBALTZATEGI / Idazlea

# Kolonbia: Giza eskubideak eta bakea. Elkartasuna Euskal Herritik

**A**lbisteak sailean datozkigu Kolonbiatik azkenaldi honetan; denetari-koak, kontradiktoriai sarritan. Kolonbiako Gobernu eta Nazio Askapenerako Armada (ELN) hasiak ziren elkarriketatzen, 25 urteko gerrillaren ondoren bake-hitzarmenari begira; talde armatuaren burua, Manuel Pérez, hila zela jakin genuen gero duela bi aste; eta zalantzak ere agerty ziren negoziatzei buruz, haren ondorengo jarrera gogorrago omen zelako. Bitartean etenda egon dira horiek.

Elkarriketa-dinamikari bultzada emateko, hain zuzen, antolatuak zituen GKE zenbaitek topaketak Iruñean, non Kolonbiako indar politiko eta sozialetako ordezkari asko parte hartzea baitzen, bakerako bideak ircki nahian; baina zorritzarrez bertan behera geratu ziren jardunaldiok, Nafarroako gobernuak bere babes «instituzionala» kentzean.

Orain berriro, aste honetan, jakin dugu Kolonbiako Gobernuak eta ELNk elkarriketei ekin egin diela berriro. Horietan puntu larrienetakoa eta eztabaidagai bizienetakoa giza eskubideen urraketena da, eta herriarren hilketena, militarren eta paramilitarren eskutik; agintari politikoak ez baitira gauza izan orain arte sarraskiok geratzeko. Hauxe idazten ari naizen honetan giza eskubideen beste

derársela marginada social. Simultáneamente, el desplazamiento forzado adquiere un carácter masivo que supera el millón de personas, las amenazas y hostigamientos contra líderes de organizaciones sociales y defensores de los derechos humanos aumentan cada día y la impunidad mantiene índices del 97 por ciento.

Kolonbiarentzako denon elkartasuna eta Europako gobernuen aldetik jarrera aktiboagoa eskatu ondoren, honetara amaitzen zen manifestua: «En la coyuntura actual en la que el Gobierno colombiano ha manifestado su deseo de 'iniciar una gran cruzada por la defensa de los derechos humanos' es un momento oportuno para aunar todos los esfuerzos desde la comunidad internacional para generar los espacios que requieren las organizaciones sociales y los defensores de derechos humanos en la búsqueda del camino hacia la superación de la crisis de los derechos humanos que vive el país y la solución política al conflicto armado interno».

Testuinguru horretan oso egoki dator Omar Fernández kolonbiar fraidearen eta giza eskubideen aldeko ekintzailearen bisitaldia gure artera. Frantziskotarra da Omar, Justizia eta Bakea batzordekoa eta Kolonbiaren Bakerako Frantziskotar Misioko kidea eta eragilea. NBEko giza eskubidei buruzko Batzordeko aholkularia izan da

berriki Genevan. Handixe dator, hain zuzen. Euskal Herrira Espainiako zenbait hiritan hitzaldiak eman ondoren; Bilbon eta Donostian jardungo du, zenbait elkarriketa eta hitzalditan Kolonbiak bizi duen drama ezaugarazten eta giza eskubideen eta bakearen alde daramaten ekintza eta abalegina agertzen.

Bere bizitzari buruzko lekuoktza batean honela idatzi du Omar Fernándezek: «Entendi que no bastaba vivir con los pobres y vivir como pobres sino que era necesario luchar con ellos por una vida digna. Durante esta época, procuré que otros entendieran lo mismo y lucharan por lo mismo, desde nuestro compromiso como cristianos. Creo que logré que muchas personas entendieran esto, no solo con ideas, sino ayudando a que muchos se comprometieran en una práctica en favor de la justicia».

Ulertu zion horietako bat beraren anaia gazteena izan zen; baina nekazarien eta indigenen errebindikazioen aldeko lanean bi urtez zihar-duela, hil egin zuten, katekista bat eta bi indigena lagunekin batera.

24 urte zituen anaia. Euskaldunon arazoetan bere elkartasun praktikoa agertu zigan Eduardo Umañaren oroitzapena bizirik edukiko dugu aste honetan, eta Kolonbiarekiko geure elkartasuna itzultzeko aukera izango dugu.

lópez & pérez

